

Euskalzaleen-Bilzarra

Laguntasunaren Ondarrabia-ko bilkuran, 1906^{ko} buruillaren 13^{an}, *Martin Landerreche* aphezak irakurtu zuen Eraskuntza, Euskarari *irau-
pen* eta *hedamen* emateko, egin behartzen denaz.

Lagun ohoragarriak,

Loquere major natu: Mintza zaite zaharretarik balimbazare, dio Liburu Sainduak. Mintza naiteke beraz, zahar naizenaz geroz, nahiz guziek dakizuen den, nik erran dezakedana.

Bilkhura huntarat erakharri gaituen hotsa da Euskararentzateko gure amodioa. Maite dugu ezen, bai eta bethiere maithatuko *Euskara*, arbasoen mintzaira zahar, eder eta garbia.

San Agustiñek dio, haimbertze errespetu zor zaiuela Salbatzailearen hitzari, nola haren gorphutzari. Guk ere erran dezakegu, *si licet parvis componere magna*, zilhegi balimbada gauza ttikien handiekin partzea, amodio bera zor diogula gure mintzairari, nola gure odolari, *Euskarari*, nola Euskaldun jendekiari.

Zer ordea galdetzeu du batbederarenganik amodio horrek? Gure Laguntasuneko Erregelamenduak galdetzen duena bera: *Iraupen* eta *hedamen* Euskarari ematea. Eta zer moldez? Horra, Jaunak, zer nahi narotzueken adiarazi.

I.— IRAUPENA

Iraupen horri dohakonaz, Euskalzaleak behar du Euskaraz mintzatu eta mintza-araztea bilhatu, alde batetik, eta Euskararen garbitasuna ahal denaz begiratu bertze aldetik.

§ I.— Euskaraz mintzatzea da, Euskara bizi atchikitzea. Euskaraz mintza ez laitekeenak, Euskara lotan atchikitzen luke, eta, lo hori guzietarat hedatzeaz geroz, heriotzea laiteke.

Euskalzale egiazkoak beraz, Euskarari biziaren emateko, behar du:

1° Jarraitasunekin Euskaraz mintzatu. Horrela du bere zauri kaltekorrenetik sendatuko gure mintzaira maitea.

Guziek ezen bihotz-min handirekin dakusaguna da, euskararen urhaspidea zein den uzkur eta nagi gure Euskal-Herrietan. Noizpeit gindioena, erdara bati ohartzeaz geroz, ez dakigu, gutiz gehienek, erdararekin baizik elkharretarat hurbiltzen. Baditugu bilkhura, euskaldun garbiek berek, burutik buru, euskal hitzik athera gabe egiten ditugunak. Eta zer, nagikeria horri darraikola, gerthatzerat dohaku? *Don Arturo Campion*, Laguntasuneko Buru lehenak, gure bilkhura batean zioena: « — Laster gure Errietan ez da beste gauzarik irauteko mendien izen zaarrak baizik. Eta orduan, nork daki? lotsez beteak, gure kopetak bezala, zelaiatuko dira mendi goititu oiek ere!»

Horra zer desgrazia auhendagarriari ihardokitzeko, behar garen baitez pada *Euskaraz mintzatu* etchean, hauzotegian, gure goan-ethorrietan, hitz batez errateko Euskalduna Euskaldunarekin aurki gaitezken ibilpide guzietan.

Egin daitekena da. Gutiak diren arren, badire urhaspide horri antsia-tuki darraizkonak. — Aita Belzunce misionest bat, Buenos-Ayres-etako goraintzi batzu Zarauz-ko etche gisako baterat ekharri zituelarik, espan-titua eta boztua zagoen, ez zutelakotz etche hartakoek, ez mahainean, ez etche bazterretan, ez nihon, erdal-hitzik atheratzen, berek eta Aita misionestak trebe zutelarik erdara.

Horra bada Euskalzaleak egiteko duen gauza premiatsuena, filosofoek derasatenaren arabera: *Prius esse, quam sic esse; halako edo holako izatea baino lehenagoko da nolazpeitko izatea.*

2° — Euskalzaleak etchea behar du erdaratik garbi atchiki, ezagutzerat ongi ematen duena gerthakari batek.

Euskarari dohakionaz, Vera-tar bati herriko berri galdetzen zitzaioe-larik, ihardetsi zuen: «— Karrika nahastatuche da, bainan garbi dago basa bazterra. Guk muthil erdaldun bat ginduen aldi batez, gure seme batek, lanetan harekin, eskolan eta karrikan bere lagunekin, erdaraz mintzatuz, egin zuen erdararekin trebatzea eta euskararekin arrotzea. Etchekoek ere, bai batekin, bai bertzearekin erdaraz hitz egiñez, euskara alderat utzi ginduen. Zorionez ordea, erdalduna khendurik, euskaldun bat hartu baikinduen. Euskara berritz ere etchean erreberritu zen, eta, ni bizi nagoelarik, ez da erdararik ikusiko bertze behin gurekin erre-giñatzen.»

Gauza bera errateko bada, Euskararen onetan, ezkontzari, lampideari,

sal-erosiari eta har emanari dohakotenaz. Nahiago behar ditugu Euskal Herrietan Euskaldunak ikusi, fagoratu, maithatu. *Caritas bene ordinata incipit à semetipso*; zor egiazko bat da odolari dioguna. Zor horren pagatzeko ezacholatu dena, ez daiteke ez Euskaldun, ez Euskalzale egiazko batentzat ezagutua khausi.

Badire Baionan eta Donostian, bai duda gabe bertze tokitan ere, urhats zorionezko horri buruz dabiltzanak. Etche handienen batzutan, sehi euskaldunak nahiago dituzte, haureri hastetik euskararen irakas-teagatik.

Badakigu, ezkontzari behatzen zaioenaz, kampotar Euskalzale aipharri bat, Euskara prezatzen duelarik, Euskaldunen alderat hotz eta murriz dagoena, ez zuelakotz noizpeit Euskaldun baten alaba andretzat ardietsi ahal izatu.

3º — Euskalzaleak, bere mintzairarentzat duen kharra, bertzeren baithan sustatzen ikusi nahiko du. Ezin mana dezaken tokietan, bere kidekoak eta bere adiskideak, antzez eta amulsutasunez, Euskararen erabiltzerat erakharriko ditu.

Bainan, buru hortarik, Euskarari egin dezoken fagore bereziena duke, bereziki Nafarroan, aphezetarik ardiestea bere irakaspenak Elizatik egin detzaten Euskaraz, eta ahal bezambatean Euskara garbiz. Bertzela labilkeen aphezak, berak luke arbasoen mintzaira, mende zaharrenetarik ethorria, ichiltzerat kondenatzen. Hortaratua da, diotenaz, Nafarroako jaun Erretor bat. Eta zergatik? Berak omen zioen: «— Errezkiago hitz egiten diat erdaraz.»

Eta nola gauz hoitaz solas baikinduen adiskide batekin: «— Ez da askiko, zuen egin, aphezkundearen alde izatea. Badire Euskaldun-herri, aphez-erretor erdaldunik eman zaizkotenak!» Hori bertzerik eta gehiagokorik da. Gure euskaldun buru berezieneri dagokote ikhustea gauzak zertan diren, eta beharrean nola erremedia daitezken. — Hala nola hekieri baitagokote, ahal den ordutik eta ahal den bezambatean ardiestea, eskoletan ikhusia eta ikhasia aurkhi-araz dadien erdararekin. *Euskara*. Banago ordea, noizpeit berdinduko othe dugun, haur eta buraso, *Polonia* guziak, ez gosta gabe, gauza horri dohakonaz, ezin hobeki bethetzen duen eginbidea.

Zuzen bidetako galdeak orai edo sarri bururatzen dire. Huna behinik behin, Frantziako hegoa aldean aurthen berean zer ikhusi den: *M. l'abbé Aurouze*, aphez gazte bat, *Aix* deitzen den hiriko Akademia edo Fakultateak, doctor-es-Lettres errezebitu du. Hortarako bere Eraskuntza zuen, agerian emateko, *mintzaira probenzal edo Erromana*, frantsesaren ikasteko, mendez gazteriarri baliatu zaiola; eta bere eraskuntza probenzalez eman du, eta etsaminatzaile ekilako bere *ez-baiak* probenzalez ihardoki ditu. — Eta gu, gogo sendoko eta zango beso zailetako Euskal-

dun zaharren seme garenek, ez gintuzke gure mintzairaren zuzenak hitzez ere sustengatuko!

§ II.— Euskalzaleak ordea, Éskuarari iraupen emateko, ez du bakharrik behar euskaraz mintzatu eta mintza araztea bilhatu, baina *galtzetik* eta *nahastatzetik* begiratzeko baditu oraino euskararen garbitasuna eta edertasuna:

1º— Euskal-hitz galtzerat dohazineri behatzen denaz

Badire noizpeitko euskal-hitz garbi ondikoz ahantziak. Hekien orde behartu ziren erdal-hitzak hartu, bai eta azkenekotz gure Hiztegiatarat onhetsi. Ondikozkoago dena da, hitz garbi arbasoenganikako hek zabitzan orduan erortzerat eta galtzerat utzi zirela, arbuatzen balire bezala etheko haur egiazkoak, eta, hek ohilduz, atze-haur nombeitikakoak, hekien ohe eta jar-tokietan ematen.

Bainan, lehenagoko egitate auhendagarriak, egunetik egun erran deza-kegu erreberitzen direla; Euskal-mintzaira erdal hitzekin egunetik egun zikhintzenago eta nahastekatzenago dugula. Aitzitik ordea, eman gaitezen, hitz garbi arrotzen hasiak diren eta zokho galduche batzutan baizik aditzen ez ditugun hekien *biltzen*, artharekin *altchatzen*, eta zuzen den tokietan *ezagut-arazten*. Halako batzutarik bide da *Nahitia* (velléité, voluntad no firma), bai halaber Inkaria (eginkaria, excrementum), aho garbienak erran eta beharri mimerenak adit dezaken hitza; bai eta ere *Nakasta*, solas irriz erraten den gaitzigarria. Hoik dire Laburdi hegal batean baizik aditzen ez ditugun eta nor-nahik non nahi adiaraztea ongi lohakioketen hitzak.

2º— Biltzeko dire *Kantabrismoak*, edo Euskararenak baizik ez diren mintzatzeko molde edo hizkuntzak.

Mintzaira bakhowitzak molde bateko edo bertzeko bere *idiotismoak* baditu, eta mintza-molde berezi hek diote edo zein mintzairari ematen bere itchurapen berezia, bertze bakhar bati ere eman ez zaioen bezalakoa. Hala nola, *horri darraikola*, *datchikola*, *dena den*, eta bertze.

3º— Gauza bera errateko bada gure *Zuhur-Hitzez*. Hoik ditu jendekia batek bere aberastasun handiena, hoitarik direnaz geroz agertzen, jende mota baten eta bertzearen gogoko, bihotzeko eta molde gutizako atzartasun, bizitasun, ontasun, borthiztasun eta jarraikitasun gutiagoko edo gehiagokoak. Ehunkak eta ehunkak badire, Garibay-k, Oihenart-ek eta bertze batzuk bildu Euskaldunen *Zuhur-hitz*, kampoitar jakintsuneri zoragarri zaizkotenak.

Badire ordea, aditzen bai, eta irakurtzen ez direnak. Nola naski hauk: *Dagoena buru handi*, *dabillana sabel handi*;— *Aida churia*, *adi zak gorria*; *Jazkoen adin*, *aurthengoen bardin*. Bil detzagun beraz lehen aldiko aditzen ditugun *Zuhur-Hitzak*, urrhe, zilhar eta diamanta erhauts-petik baiño artha gehiagorekin.

4º— Molde beraz, azkenekotz, ikusteko eta suntsi daitezken tokitarik eskuratzeko dire liburu oso eta liburu zathi zaharrak: Ez edo zeinek naski, gure *don Julio Uquijo-ko*, Euskaldun molde guziz miretsi, Euskal-Liburu eta Eskuararentzat balio duten argitasun guzien *usnatzaile* eta *biltzaile* zorionezkoak bezala, sutorga lasterretan, iñhadearen pare, herritik herrira, etchetik etchera, Paristik eta Londrestik Madrilleraino besoak hedatuz; ez eta harena bezalako urhe moltzo ezin agortuekin, athe handi ttikiak, jakintsunen eta basabazter-tarren bihotzak zabaltzen ikhusiz; bainan nolazpeit ere, ahalaren arabera, eros ez daitekena non den ezagutux, eta eros dezaketen dohatsuagoeri ezagut-araziz.

Lehiatzeko badugu! Zembat liburu zallar orri haur nigartien ichill-arazteko ez darokute erraten urratu direla, edo pipa pizten erre dituztela! Donibane Lohitzungo bazter etche, noizpeit kalonje benefiziatu batzuena zen batean, bordari batek, liburu moltzo harrigarri batetik, hamar urthez baino gehiago, etcheke sua piztu zuen, diote oraino bizi diren zahar zembeitak. Zer gauzak suntzitu bide ziren *auto-da-fe* ondikozko hetan!

Guziaren buru, azken hitz batez errateko, batbederari dagokio deus egin othe dezaken ikustea, eskual-hitzen banakatuz barnadanik ezagutzeke, *Hiztegi* hat eskutan hartuz. Hiztegiak baditugu, eta bat berri berria, bertze guzien gainekoa, zazpi Euskal-Herrietako hitz eta hitz-molde guziekin *don Resurreccion Maria de Azkue*, aphez euskalzale handiak argitaratu duena. Hiztegian burutik buru hitzak hartzeko laitezke, ahal denaz, eta, batek bururatzen ez duena, bertze batek ikhusiz, zein diren *hitz buru* garbiak eta zein eta nolako hitu *moldatazkoak*. Lan nekhsa bertzalde, *hoc opus, hic labor est*, nekhez batek eta biek burura lezakena.

Don Ezekiel de Echevarria Ermuakoak, *Etimologias bascongadas bere* eskutikakoak baditu. Ez da erreiz jakitea zer mereziqendutako diren. Nik ez nakike. Bainan funts hortako lan bati lotzea bera ez laiteke prezagarri? *Non datur omnibus ire Corinthum*.

II.— HEDAMENA

Euskararen hedatzen, edo bazterretarat zabaltzen laguntzeko, zer egin dezakegu? Ez dugu gauza hortaz erranen hitz labor bat bera baizik. Iduri ere badakiokete batzuri, behar bada guzieri, ausarkiegi mintzatzea dela.

Euskal-Herrietan erdara barna sarthua da, eta geroago eta sarthuago doha, etchetik etchera, herritik herrira, mendi eta mendisketan gaindi, haran eta zelhaiez jabetuz. Gure mintzairaren mugarri zaharrak itho, galdu eta ahantzi dire. Itsaso baten pare, Euskararen bihotz bihotzeraino jo beharrez dabilzkigu erdarak. Gizon bat naski balohake, iguzkiz iguzki, Euskararen oraiko muga bazterretarik Euskal-Herriaren erditaraino.

Zer beraz egiteko dugu? Den gutieneko urhats batetarik abiatuz, ahal den bezain urrun, bethi eta bethi kamporatago heltzeko, khien detzogun erdarari etche edo etchalde bat eta bertze, noizpeit herrichka, mendicka, harantto bat edo bertze. Erdarari khien dakiokena, bethe dezala ordu beretik Euskarak. Erospen zabalagoaren egiteko, eskasten ez balimbada urhea, eskuratuko denaren bethetzeko, ezin eskastuko da euskaldun odolaren hazia!

Hasten balitz hedatzen urhaspidea, eta urhats eginari balinbagindarraizko, ez laiteke uzkuertzerik izanen. Abiatzeak ematen du hedatzea, hedatzeak bururatzea. Errana da, badakigu: *Lau ongi hasia, erdi akhabatua*.

Hortan iehiltzen naiz. *Intelligenti pauca*, zioen zaharrak: *Gizon atzarriarri hitz guti!*

Eta, azken hitz batez guziak baterat emateko, ager gaitezen molde guziz *Euskararen alde*, hori baitukegu, Euskararen bidez agertzea, *Fedearen alde*.

MARTIN LANDERRECHE, *apheza*.

Bihotzetik eskainia Euskalzale gazteeri,
eta guzien gainetik *don Gregorio Mujika-ko* Euskalzale gazte khartsuari.

M. L. *aph*.

Donibane-Lohitzundik, Uztailaren 4^{ean} 1907^{an}.

